

Funtsezko elkarketak:

→ *Zeintzuk dira zure proiektuak funtziona dezan behar dituzun bazkide eta hornitzaile nagusiak?*

Hornitzaileak:

Gure hornitzaile nagusiak, teknologia-enpresetan bilatuko genituzke, hauek izango liratekeelako txipak modu egokian sortzeko adituak eta gure produktua posible eta segurua egiten lagunduko baitigute. Era berean, hornitzaile gisa prestaturiko informatikariak bilatuko genituzke, produktuaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko eta informazioa txipetik konektatu beharreko gailuetara behar bezala pasatzen dela ziurtatzeko.

Bazkideak:

Enpresaren sorrera aurrera eramateko eta gure proiektua eraikitzeko beharrezko kalitate handiko materialak lortzeko kapital nahikoa lortzea, guztiz segurua dela ziurtatuz. Hainbat inbertitzailearen laguntza lortuko genuke, haien diru laguntzaren truke gure diru-sarreraren ehuneko jakin bat lortuko luketen ekarpenaren arabera.

Bazkideak gure proiektuan interesa duten enpresak izango liratekeela uste dugu, hala nola osasun eta teknologiako enpresak, baina irekita dago bai edozein motatako inbertitzailearentzat bai irabaziak lortu nahi dituen edozein pertsonarentzat.

Txiparen eraikuntza burutzeko, gure beharrezko materialaren hornitzaile nagusia, kasu honetan silizioa, Austriako Remag Leichtmetall GmbH enpresa litzateke, 25 urte daramatza eta munduko metal-hodakinen esportazioko enpresa handienetako bat da.



"We are having aluminum in magnesium in our blood..."